

GIZARTE ETA KULTUR ANIZTASUNA: ERLIJIOAK ETA HIZKUNTZAK
Gaztelaniako aholkularitza, Abando
Bigarren Hezkuntzako aholkularitza, Getxo eta Leioa

CURRICULUM-ANIZTASUNeko TALDEENTZAKO UNITATE DIDAKTIKOA

HIZKUNTZA ETA GIZARTE ESPARRUA

***GIZARTE ETA KULTUR ANIZTASUNA:
ERLIJIOAK ETA HIZKUNTZAK***



**Bigarren Hezkuntzako aholkularitza. Getxo eta Leioako berritzegunea
Gaztelania eta literaturako aholkularitza. Abandoko berritzegunea**

5.1. 1. sekuentzia

IKUSPEGI OROKORRA: Munduko erlijio eta hizkuntzak

Aldez aurreko ariketa: Unitateko helburu, eduki eta lan egiteko modua negoziatzea.

1. ariketa: Aurretiko ezagutza lantzeko ariketa. Hizkuntzak, artea, aurpegiak, etab. banatzea.

2. ariketa: Mapak irakurri eta interpretatzea, erlijio eta hizkuntzen mapa egitea.

3. ariketa: Erlijio eta hizkuntzei buruzko estatistika-taulak interpretatzea. Interpretazio-grafikoak egitea.

4. ariketa: Lehen emaitza idatzia. Zerrenda moduko datuak biltzen dituen testua, lokailuak erabiliz. Erlijioei buruzko estatistika-tauletatik ateratako datuak idatziz azaltzea. Banakako idazketa. Ebaluazioa.

5. ariketa: Informazioa bilatu eta jasotzea ahozko teknikak erabiliz. Herri bakoitzeko iraganeko eta gaur egungo erlijio- eta hizkuntz egoera alderatzea.

6. ariketa: Ondoko kontzeptuak bilatzea: eleaniztasuna, elebakartasuna, monoteismoa, politeismoa. Glosario bat prestatzea. Taldean eztabaidatu eta kontzeptuak zehaztea.

7. ariketa: Horma-irudi bat egitea:

* Testuingurua prestatzea

* Lana antolatu eta eginkizunak banatzea

? Informazioa bilatzea.

? Eskema bat aukeratu eta finkatzea. Eskemak berrikusteko lana. Ideia nagusiak eta osagarriak.

? Horma-irudiko testuaren lehen idazketa. Azalpen-testua. Kontuz hirugarren pertsona eta orainaldiarekin.

? Zirriborroa berrikustea. Berriridaztea.

? Horma-irudia egitea.

AURRETIKO ARIKETA: LANA ANTOLATZEA

Zer ikasiko dugu?	Zein ariketa egin dezakegu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
<ul style="list-style-type: none"> . Hizkuntzen arteko ukipenak eta loturak aztertzea. . Munduko erlijio nagusien ezaugarriak ezagutzea. . Hizkuntza eta erlijioen inguruko gatazken zergatia bilatzea. . Estatuko hizkuntzei buruzko oinarritzko datu batzuk. . Taldean lan egiten ikastea. . Hizkuntzari eta erlijioari lotutako aurreiritziak aztertzea. . Testu akademiko bat idaztea. . Beste kulturak baloratzea. . . 	<ul style="list-style-type: none"> . Egunkariko artikuluak irakurri eta aztertzea. . Eztabaida bat egitea. . Horma-irudi bat egitea. . Mapak eta grafikoak interpretatzea. . Monografiatxo bat egitea. . Testu akademikoak irakurtzea. . Hainbat iturritan informazioa bilatu eta aukeratzea. . Ikerketa soil bat prestatu eta egitea. . . 	<ul style="list-style-type: none"> . Ikasitakoaren autoebaluazioa eginez. . Eskolaren, unitatearen, irakaslearen... ebaluazioa eginez. . Koadernoak zuzenduz. . Betiko moduko azterketa bat eginez. . Irakasleari emandako lan eta iruzkinen notaren bidez. . Talde bakoitzak ebaluatuko du bere lana. . Ikaskideen laguntzarekin. .

Taldeka lan egin goiko orria erabiliz eta ondorengo jarraibideak betez:

- ☞Lauki bakoitzean bertan agertu ez baina zuen ustez agertu beharko lukeena idatzi.
- ☞Lauki bakoitzetik garrantzitsu iruditzen ez zaizuenak kendu.
- ☞Lauki bakoitzean jasotako alderdiak garrantzitsuen iruditzen zaizkizuenetik garrantzi gutxienera dutenetara zenbakitu.

Gogoan izan bozeramaile bat izendatu behar duzuela ondorioak jakinara

1. ARIKETA: NORI BEREA

Jarraian hainbat grafiko aurkituko dituzue. Grafiko horiek elkartu egin behar dituzue ezaugarri berelziak dituzten lau irudi-multzo osatu arte. Ezaugarri horiek azaldu egin behar dituzue.

1.1 Irudiotako pertsonak zein erlijio dute zuen ustez?





1.2 Jarraian agertzen diren ikur eta eraikinak bakoitzari dagokion erlijioarekin lotu (kristautasuna, budismoa, judaismoa eta islamismoa).


GIZARTE ETA KULTUR ANIZTASUNA: ERLIJOAK ETA HIZKUNTZAK

Gaztelaniako aholkularitza, Abando

Bigarren Hezkuntzako aholkularitza, Getxo eta Leioa




1.3 Zein motatakoak dira ondorengo alfabetoak: latindarra, arabiarra, txinatarra, hebrearra?




ح	ث	ت	ب	ا
ر	ذ	د	خ	ح
ض	ص	ش	س	ز
ف	غ	ع	ظ	ط
ن	م	ل	ك	ق
	ي	و	ه	

1.4 **1. mapa**n 1.2. ariketan aipatutako **erlijioak** nagusi diren eremuak nabarmendu, eta **2. mapa**n **hizkuntza** hauek: ingelesa, frantsesa, gaztelania, txinera eta arabiera.



1. mapa



2. mapa

2. ARIKETA: ZER GERTATZEN DA MUNDUAN?

Mapa mutu batzuk banatu dizkizuegu. Bertan ondokoak adierazi behar dituzue:

1. mapan ondoko erlijioetako bat erlijio nagusizat duten lekuak: kristau erlijioa (kolore arrosa bizon), budista (horiz), judaismoa (morez) eta islamismoa (urdin argiz).

2. mapan nagusiki hizkuntza hauetakoren bat hitz egiten duten herriak: ingelesa (urdina), frantsesa (berde argia), gaztelania (berde iluna), txinera (horia) eta arabiera (marroi argia).

Bi mapetan kontinenteak, ozeanoak eta itsasoak zehaztu behar dituzue, halaber.

Mapa hauek osatzeko informazioa atlas, entziklopedia eta hiztegietan bilatu behar duzue.

Mapak bukatzean, irakasleak munduko erlijioen eta munduko hizkuntzen mapa bana emango dizue, zuen mapekin alderatzeko.

3. ARIKETA: GRAFIKOAK EGITEN

A “munduko erlijioen gainera ikuspegia” eta **B** “hizkuntzak munduan” estatistika-etaulak erabiliz datuak interpretatzeko lantxo bat egin behar duzue.

A. Munduko erlijioen gainera ikuspegia

	1990	2000	2025
Munduko biztanleria	5.266.442.000	6.055.049.000	7.823.703.000
Kristauak (izendapen guztiak)	1.747.462.000	1.999.566.000	2.616.670.000
Musulmanak	962.356.000	1.188.240.000	1.784.876.000
Hinduak	685.999.000	811.337.000	1.049.231.000
Budistak	323.107.000	359.982.000	418.345.000
Ateoak	145.719.000	150.090.000	159.544.000
Erlijiorik ez	707.118.000	768.159.000	875.121.000
Erljio berriak	92.396.000	102.346.000	114.720.000
Tribuen erlijioak	200.035.000	228.367.000	277.247.000
Sikhak	19.332.000	23.258.000	31.378.000
Hebrearrak	14.189.000	14.434.000	16.053.000
Ez kristauak	3.518.980.000	4.055.483.000	5.207.033.000
Anglikanoak	68.196.000	79.650.000	113.746.000
Katoliko zaharrak	5.239.000	6.688.000	9.635.000
Ortodoxoak	203.766.000	215.129.000	252.716.000
Protestanteak	296.339.000	342.035.000	468.594.000
Erromatar katolikoak	929.455.000	1.056.920.000	1.361.965.000

Iturria: “International Bulletin of Missionary Research”, 2000ko urtarrila

Munduko erlijioen gainera ikuspegiari buruzko serie estatistiko bat aurkezten dizuegu.

Serie estatistiko hau erabiliz, **barra-grafiko** bat osatuko duzue. Goian aipatu ditugun erlijioak hartuko dituzue soilik (kristautasuna, judaismoa, islamismoa eta budismoa). Aurreko hauei ondokoak gehituko dizkiegu: hinduismoa, ateoak eta erlijiorik ez dutenak.


Horretarako, ariketa hauek egingo ditugu:

- Serie estatistiko honen izenburua eta biltzen dituen urteak (kronologia) idatzi.
- Aintzakotzat hartu beharreko zenbakizko balioak zeintzuk diren esan.
- Estatistikaren azalpen orokorra egin, denboran zehar zenbakizko datuak nola aldatzen diren azalduz.
- Irudikatutako datuei buruzko ondorioak atera.

Grafikoa egiteko urrats hauek bete behar dituzue:

- ✍ Koordenatuak marraztu. Bertikalean item bakoitzari (kristautasuna, judaismoa, islamismoa, hinduismoa, budismoa, ateoak, erlijiorik gabeak) dagokion pertsona-kopurua jarri behar duzue. Horretarako, kopuru txikiena eta handiena aurkitu behar dituzue aurrena: 145.719.000 eta 1.747.462.000, 1990. urtean. Paper milimetratuan 200na milioikako tarteak marraztu. Horizontalean, goian azaldutako itemak bereizi tarte berdinetan.
- ✍ Zutabeak honela margotu behar dituzue:
 - ✍ Kristautasuna (arrosa bizia)
 - ✍ Budismoa (horia)
 - ✍ Judaismoa (morea)
 - ✍ Islamismoa (urdin argia)
 - ✍ Ateoak (laranja)
 - ✍ Erlijiorik gabeak (marroia)

Hona adibide bat, lana errazteko:



3 barra-grafiko egin behar dituzue:

- 1.- 1990ko egoera
- 2.- 2000ko egoera
- 3.- 2025eko egoera

Ondoren, egindako hiru grafikoak elkarren artean alderatu.

Informazioa bilatu hinduismo eta budismoari buruz.

**B. Hizkuntzak munduan
1993-2025**

	1993	1993	2025	2025
HIZKUNTZAK	BIZTANLEAK GUZTIRA (MILIOIAK)	MUNDUKO BIZTANLERIAREN %	BIZTANLEAK GUZTIRA (MILIOIAK)	MUNDUKO BIZTANLERIAREN %
Mandarina (Txinan %70)	777	14	1.077	12,7
Gaztelania ¹ (328 mil. 1993/523 mil. 2025)	328 (26)	9	523 (50)	9,0
Ingelesa ²	468 (5)	8,4	668 (5)	7,8
Hindia (Indian %38)	348 (1)	6,3	539 (1)	6,3
Arabiera	193 (5,2)	3,5	395 (5,2)	4,6
Errusiera	165	2,9	193	2,2
Japoniera	124 (0,7)	2,2	127 (0,7)	1,4
Frantsesa ³	109 (18)	1,9	130	1,4
Alemana	91 (5)	1,6	98 (5)	1,1
Italiera	59 (2)	1	59 (2)	0,6

Iturria: "Comparative National Statistics", [Britannica World Data](#), Chicago 1994

OHARRA: Parentesi artean agertzen diren kopuruak kopuru osoan dagoeneko jasota dauden zeharkako hitzunei dagozkie. 2025erako estrapolazioa irizpide demografikoei jarraiki egin da, eta, horretarako, bi datu hauek hartu dira oinarritzat: 1993ko herrialdeko hitzunik eta zuzeneko hitzunen hazkundea. Iturria: "El Estado de la Población Mundial" 1994. Nazio Batuetako Biztanleria Fonda, Nazio Batuak, 1994.

Serie estatistiko honetan agertzen diren datuekin grafiko zirkular bat egin behar duzue.

Hona adibide bat lana errazteko.



Alemaniak lortutako dominak
1992ko olinpiadak
33 urrezko, 21 zilarrezko, 28 brontzezko

Grafiko zirkularra egiteko, urrats hauek bete behar dituzue:

- ✍ Konpasa hartu eta zirkulu bat egin
- ✍ Datu bakoitzari zenbat gradu dagokion kalkulatzeko, formula hau erabili:

$$\frac{\text{Irudikatu nahi duzuen datua} \times 360^\circ}{\text{Kasu guztiak (guztizkoa)}}$$

Ingelesa, frantsesa, gaztelania, txinera, arabiera eta beste hizkuntza batzuei (gainerako hizkuntzetako hiztunen batura) buruzko datuak bilatu behar dituzue.

- ✍ Atal bakoitzari dagozkion datuak kalkulatuak, zirkuluan irudikatu. Horretarako, angelu-garraigailu bat erabiliko dugu.
- ✍ Atal bakoitza kolore batez margotu:
 - ✍ Ingelesa: urdina
 - ✍ Frantsesa: berde argia
 - ✍ Gaztelania: berde iluna
 - ✍ Txinera: horia
 - ✍ Arabiera: marroi argia
 - ✍ Gainerako hizkuntzak: laranja
- ✍ Hizkuntza bakoitzaren izena idatzi atal bakoitzaren ondoan, eta ez ahaztu diagrama bakoitzari izenburua jartzea.
- ✍ Bi diagramak alderatu.

Talde guztien emaitzak denen aurrean aurkeztu behar dira, sortutako aldeak aztertzeko.

4. ARIKETA: DATUAK TESTU BIHURTZEN

Osatu dituzuen mapak erabiliz, ondorengo erlijio hauen banaketa geografikoa zein den erakusten duen azalpen-testu labur bat idatzi behar duzue: judaismoa, kristautasuna, budismoa eta islamismoa. Zuen testuak ondoren agertzen den eskemaren egitura bete beharko du. Gogoan izan, paragrafo hasierako lokailuak erabili eta indikatiboko orainaldiko 3. pertsonan idatzi behar duzuela.

Sarrerako paragrafoa
Lehenik eta behin,
Bestalde,
Jarraian,
Azkenik,

5. ARIKETA: HERRI BAT, HIZKUNTZA BAT, JAINKO BAT?

- a) Gure herrian duela hogeita hamar urte hizkuntzaren eta erlijioaren egoera zein den galdetu behar duzue etxean, gurasoei edo aiton-amonei. Informazio hori bildu eta ondoren orri hau bete beharko duzue.

. Zeintzuk ziren penintsulako hizkuntza ofizialak?

. Zein hizkuntza ikasten zen eskolan?

. Kanean edozein hizkuntza erabil zitekeen?

. Zein erlijio praktikatzen zen?

. Eskolan erlijio guztiak irakasten ziren?

. Erlijio guztietako tenpluak zeuden?

Bildutako datuak gelan aurkeztu behar dituzue, gaur egungo egoera eta duela hogeita hamar urtekoa alderatu eta baloratzeko. Aniztasuna ala homogeneotasuna, bietatik onena zein den azaltzen duen azken ondorioa atera behar duzue. Eztabaidan zuen jarreraren aldeko argudio bat eman behar duzue gutxienez.

6. ARIKETA: KONTZEPTUAK SENDOTZEN

a) Eztabaida amaitu ondoren, ondoko kontzeptuen definizioa bilatu behar duzue hiztegian edo entziklopedian:

? eleaniztasuna / elebakartasuna / monoteismoa / politeismoa

Aurkitu duzuen gainerako ikaskideei aditzera eman eta unitate honetako hiztegi berezia bilduko duen glosarioan jaso. Glosario hau unitate osoan zehar osatuko duzue, eta agertzen zaizuen edozein hitz jaso dezakezue bertan.

7. ARIKETA: HORMA-IRUDIA EGITEA

Ariketa honetan, hirunaka bildu eta horma-irudi bat egingo duzue, 1. eta 2. ariketetan landu ditugun erlijioetakoren bati buruzko informazioa bilduz. Horma-irudian aukeratutako erlijioari buruzko azalpen-testu bat jarri behar duzue, eta egoki irizten diozuen irudiez lagunduko duzue testua.

HORMA-IRUDIA EGITEKO URRATSAK

1. Lana prestatu, zereginak banatu eta epeak finkatzea.
2. Informazioa bilatu (idatzia eta grafikoa), aukeratu eta laburtzea.
3. Azalpen-testuaren eskema egitea.
4. Testuaren zirriborroa idaztea. Berrikustea.
5. Informazio grafikoa eta idatzizkoa lotzea.
6. Horma-irudia egitea.

Kontrol-orri bat ematen dizuegu, testua idazten laguntzeko.

AZALPEN-TESTUA IDAZTEKO KONTROL-ORRIA

- ? Ez ahaztu testuaren helburua zerbaiten berri ematea dela
- ? Hartzaileak (zuen ikaskideek) gaiari buruz jakin dezaketena gogoan izan
- ? Beharrezko informazioa bildu
- ? Informazio garrantzitsua aukeratu, informazio hori azpimarratuz
- ? Idatziko duzuen testuaren hasierako eskema egin:
 - Antolatze-esaldi bat lehen paragrafoan
 - Aukeratu duzuen ezaugarri bakoitzeko paragrafo bana
- ? Testua idatzi, testu-zatiak (paragrafoak) hitz egokiekin lotzen saiatuz. 4. ariketako lokailuen zerrenda erabili

5.2. 2. sekuentzia:

Begirada bat iraganari eta orainaldiari: Espainiako egoera

1. ariketa: Denbora-lerro bat irakurri eta interpretatzea. Irudi adierazgarriak denbora-lerroko datekin lotzea.

2. ariketa: Mapa mutuak interpretatzea (erromatarren aurrekoak, erromatarrak, germaniarrak eta musulmanak). Taldeka informazioa bilatzea eta talde bakoitzak galdera batzuei erantzutea.

3. ariketa: Testu bat irakurri, ulertu eta laburpena egitea. Bi egoera alderatzea: Errekonkista eta prozesu horren amaiera. Gaztelania hedatzeko arrazoiak.

4. ariketa: Espainiako hizkuntzei buruzko mapa mutua interpretatzea. Lau hizkuntza ofizialetan idatzitako testu bat biltzen duen koadroa, lauren arteko parekotasunak bilatzeko.


5. ariketa: Taldeka azalpen-testu deskribatzaile bat egitea, lau hizkuntza ofizialetako bati buruz. Hauxe izango da sekuentziako azken lana. Joskerari garrantzia emango zaio. Emendiozko eta erlatibozko perpausak. Aurreko lanetan jorratutako gaitasunei arreta (pertsonek, denbora eta aditz-modua).

Joskeraren alderdiak lantzeko ariketak. Ariketa hauek 5. ariketan hasiko gara lantzen, eskema berrikusi ondoren edo zirriborroa berrikusi ondoren.

1. ARIKETA: DENBORA-LERROA

Jarraian, penintsulako bilakaera historikoko data garrantzitsuenak jasotzen dituen denbora-lerroa aurkezten dizuegu. Lerroaren ondoan garai historiko bakoitzeko irudi adierazgarriak agertzen dira, eta zuek kronologikoki antolatu behar dituzue.





**NIK, GAZTELAKO AITONEN SEME ETA ERREGAAREN ZALDUNAK, KRISTAUERAZ HITZ EGITEN
IRAKATSIKO DIZUT.
KANOAN ZATOZEN JAUNTXXO HORI, KAKAHUETEAK, TXOKOLATEA ETA ARTOA ZER DIREN
ERAKUTSIKO DIZUT.**



NIRE SEME ARTABURUARI MAMUTA JATEAGATIK ARBELA TXANO MODUAN JARRIKO DIOT



MANDATARIA NAIZ ETA HONA BIDALI NAUTE PENINTSULA MENDERATZEA DAGOKIZUELA JAKINARAZTEKO MANDATUAREKIN

PROFETAREN BIZAR SAKRATUENGATIK, ZIN DAGIT HARA JOATEAN ZORTZI MENDEZ GELDITUKO GARELA



ESATEN ARI NINTZAIZUNARI JARRAIKI, ALI ALHAMBRATIK JOATEAN ALKAZARREKO LEIHO-ERTZEAN ESERI, ETA ALONDEGIAN SALTZEKO BERE ALFERIZAK LANDATUTAKO ZITORI ETA AHUNTZ-PRAKEI BEGIRA EGON ZEN.

ALAGATIK, AI AGUAZIL HAU ALPALPA ETA KOTOI BIHURTU IZAN EZ BALUTE!



HARA NON DATOZEN LARAKO ZAZPI INFANTEAK



AGUR ZENTURIOI HORI, NORA ZOAZ?

HISPANIA MENDERATZERA, HAN LATINA ZABALTZEKO

2. ARIKETA: NONDIK GATOZ?


Ariketa honetan historian zeharreko ibilalditxo bat egingo duzue Iberiar penintsulan finkatuz joan diren herriak ezagutzeko.

2.1. Erromatarren aurrekoak

Atapuercan berriki egin diren aurkikuntza arkeologikoek berretsi egin dute lanabesak erabiltzen zituzten giza itxurako izaki adimentsu eta lagunkoiak penintsulan finkatu zirela K.a. 800.000. urtean (Behe-Paleolitoan).

Iberiarrek libiar-afrikar jatorriko historiaurreko antzinako kultura haien bilakaeraren emaitza izan ziren.

Zeltak Erdialdeko Europako indoeuropar jatorriko herria zen eta K.a. lehen milurtekoaren hasieran sartu ziren penintsulan.



a.- Bilatu hiztegi edo entziklopedia batean zein erlijio zuten iberiarrek eta zeltak.


b.- Zein hizkuntza erabiltzen zuten herri haiek?

c.- Bilatu argazki hauei buruzko informazioa eta argazkiok deskribatzen dituzten argazki-oinak jarri.

GIZARTE ETA KULTUR ANIZTASUNA: ERLIJIOAK ETA HIZKUNTZAK

Gaztelaniako aholkularitza, Abando

Bigarren Hezkuntzako aholkularitza, Getxo eta Leioa





Feniziarrek K.a. 1200. urtetik aurrera azaldu ziren penintsulan eta Gadir sortu zuten K.a. 1100ean.

Erroma eta Kartagoren arteko guduetan, **kartagotarrek** penintsula inbaditu eta zati handia menderatu zuten. Haien kolonia garrantzitsuenak Eivissa uhartean eta Cartagenan sortu zituzten.




Grekoak Tartesosekin salerosketan hasi ziren K.a. VII. mendean, eta koloniak sortu zituzten Iberiako itsasertzean: Ampuries, Roses, Mainake... Grekoak eta feniziarrek borrokan ibili ziren Mediterraneo itsasoa nork menderatuko.

a.- Bilatu ezazue entziklopedia eta hiztegietan **feniziar, greko** eta **kartagotarren** jatorria, eta jatorri horiek mapa batean kokatu. Herri haiek Mediterraneo itsasoa kontrolatu nahi izateko arrazoa bilatu.

b.- Zein erlijio zuten herri haiek?

c.- Bilatu ondoko irudiei buruzko informazioa, eta irudiotan agertzen dena azaltzen duten argazki-oinak jarri.



d.- Zein hizkuntza erabiltzen zituzten herri haiek?

e.- Bilatu entziklopedia batean, zein da euskararen jatorria?

2.2. Erromatarrak



Iberiar penintsulako biztanleak Estrabonen arabera, K.a. 100. urtea



Erromatarren konkista, ia 200 urte

Erromak Kartago guztiz menderatu ondoren, Kartagok penintsulan zituen koloniak inbaditu zituen (K.a. 197. urte inguruan). Ia penintsula osoa hartu zuen mendean. Hala agertzen da Hispania probintziako historian.

a.- Erromatarrek zein ekarpen egin zituzten penintsulan? Testuliburua, entziklopediak, hiztegiak... erabili informazioa lortzeko.

b.- Ezagutzen al duzue erromatar monumenturik zuen autonomia-erkidegoan edo penintsulan?

c- Zein erlijio zuten erromatarrek?

d.- Zein hizkuntza ekarri zuten erromatarrek penintsulara?

e.- Esan ezazue zer bait irudi hauei buruz, eta bertan ikusten dena azaltzen duen argazki-oinak jarri.



2.3. Germaniar eta musulmanen inbasioak



sueboak, bisigodoak, bizantziarrak, konkistatu gabe

K.o. 429. urte inguruan, suebo, bandalo eta alanoak sartu ziren penintsulan. Handik gutxira bisigodoak iritsi ziren. 467. urtean bisigodoek penintsularen zati handia zuten mendean.



Territorios reconquistados por :

León y Castilla Aragón Portugal

LEON, GAZTELA, ARAGOI, NAFARROA, KATALUNIA

XIII. m. hasiera, XIII. m. bukaera

Ondokoek berreskuratutako lurraldeak: Leon eta Gaztela, Aragoi, Portugal

Arabiarrek penintsula inbaditu zuten K.o. 711. urtean. Musulmanei amore eman nahi izan ez zieten hispaniar-godoak Pirinioetako bailara garaietan eta Asturiasko mendietan babestu ziren,.

Handik abiatu zen Errekonkista, eta zazpi mende baino gehiago iraun zuen. Asturiarren matxinadak Don Pelaio izan zuen buruzagi. Lehen garaipena Covadongan izan zen 722. urtean.

- a.- Zeri esaten zaio Errekonkista? Zein talde zebiltzan borrokan? Zein erlijio zuten talde haiek?
- b.- Esan ezazue zerbait irudi hauei buruz, eta bertan ikusten dena azaltzen duen argazki-oin bana jarri.





c.- Ezagutzen al duzue monumentu kristau edo musulmanik zuen autonomia-erkidegoan edo penintsulan?

d.- Izan al zarete inoiz mairu eta kristauen festak ospatzen dituzten herriren batean? Erantzuna baiezkoa bada, azaldu festa horiek. Hiztegian bilatu "mairu" hitzak zer esan nahi duen.

e.- Bisigodoek zein hizkuntza hitz egiten zuten penintsulara iritsi zirenean? Bilatu hiztegian germanismo hitza.

f.- Arabiarrek zein hizkuntza hitz egiten zuten penintsulara iritsi zirenean? Bilatu hiztegian arabismo hitza.

3. ARIKETA: ZERGATIK HEDATZEN DIRA HIZKUNTZAK?



Kristauak penintsulako lurraldeak musulmanengandik berreskuratuz joan ziren. Gaztelako erresuma ziri moduan hedatu zen penintsulan zehar. Hedapen-aldi honek XIII. mendean jo zuen gailurra, gaztelania penintsulako hizkuntza ofizial bihurtzean.

a.- Bilatu hiztegian mozarabiar hitzak zer esan nahi duen.

b.- Gaztelania zergatik hedatu zen beste hizkuntzak baino gehiago? Saiatu zuen erantzunak argudiatzen, horretarako mapak erabiliz.

c.- XV. mende amaieratik aurrera (1492) gaztelania penintsulatik kanpora hedatzen hasi zen. Zerk eragin zuen hedapen hori?



d.- a eta b puntuetan emandako erantzunak kontuan izanik, zein dira hizkuntza bat beste lurralde batzuetara hedatzeko arrazoiak: erlijioa, literatura, politika, kultura...? Arrazoi zuen erantzunak.

4. ARIKETA: PENINTSULAKO HIZKUNTZEN MAPA

Ariketa hau bi zatitan banatzen da.

- a) Lehenik eta behin, autonomia-erkidegoen mapan erkidego horietan ofizial den edo diren hizkuntzak irudikatu behar dituzue, horretarako kolore desberdinak erabiliz. Ez ahaztu mapa ondo ulertzeko beharrezko testua idaztea.
- b) Bigarrenik, Konstituzioko testu bat irakurriko duzue. Testua Estatuko lau hizkuntza ofizialetan idatzita dago. Artikulu bakoitzeko lehen atala hartu eta azpimarratutako hitzen artean aurkitzen dituzuen parekotasun guztiak aztertu. Azterketa honen emaitza ondorengo koadroan jaso behar duzue.



ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

? Artículo 3º

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, de acuerdo con sus estatutos.
3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.

? Article 3

1. El castellà és la llengua espanyola oficial de l'Estat. Tots els espanyols tenen el deure de conèixer-la i el dret d'usar-la
2. Les altres llengües espanyoles seran també oficials en les respectives Comunitats Autònomes d'acord amb els seus Estatutos.
3. La riquesa de les diferents modalitats llingüístiques d'Espanya és un patrimoni cultural que serà objecte d'especial respecte i protecció.

? Artigo 3

1. El castelan é a lingua española oficial do Estado. Tódos os españois teñen o deber de coñecerla e o dereito a usala.
2. As outras linguas españolas serán tamén oficiais nas respectivas Comunidades Autónomas de acordo con seus Estatutos.
3. A riqueza das distintas modalidades lingüísticas de España é un patrimonio cultural que será obxecto de especial respeto e protección.

? 3. artikulua

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatuei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza moeta ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.

DATUAK BILTZEKO KOADROA

Hitzak	PAREKOTASUNAK

Zeintzuk dira elkarren arteko antzik handiena duten hizkuntzak?

Zein hizkuntzak du alderik gehien?

Zergatik gertatuko ote da hori? Proposatue ezazue hipotesi bat.

5. ARIKETA: HIZKUNTZEI BURUZKO TESTU BAT

Jarraian, hiru lagunez osatutako taldeetan bilduta, deskribapen-testu bat idatzi behar duzue. Testua Estatuko lau hizkuntza ofizialetako bati buruzkoa izango da eta aukeratutako hizkuntzaren ezaugarriak azaldu beharko dira bertan.

Testua idazteko gogoan izan behar duzue hartzailea zuen ikaskideetako bat izango dela eta testuliburuetan agertzen diren testuen antzekoa izan behar duela.

Testua idazten laguntzeko, kontrol-orria erabil dezakezue, bertan agertzen diren urrats guztiak betez. Arreta handia jarri zirriborroa orraztean. Horretarako, zuen testua beste talderen bateko testuarekin trukatu behar duzue.

AZALPEN-TESTU BAT IDAZTEKO KONTROL-ORRIA

- Ez ahaztu testuaren helburua zerbaiten berri ematea dela
- Gogoan izan hartzaileak (ikaskideek) gaiari buruz jakin dezakeena
- Beharrezko informazioa bildu
- Informazioa aukeratzeko dagokiona azpimarratu
- Hasierako eskema bat egin:
 - Antolatze-esaldi bat lehen paragrafoan
 - Aukeratutako ezaugarriari buruzko paragrafo bana
- Testua idaztean saiatu zaitezte ondoko arauak betetzen:
 - 3. pertsona edo esaldi inpersonalak erabili
 - Orainaldiko esaldiak erabili, gehienbat
 - Esaldiak modu indikatiboan idatzi
 - Tonu egokia aukeratu, iritzirik eman gabe
 - Esaldi mota egokia erabili
 - Testuko zatiak (paragrafoak) termino egokiekin lotu
- Testuaren alderdi formalak zaindu: informazioaren antolaera, marjinak, ortografia

5.3. 3. sekuentzia:

Bizikidetza eta gatazkak

- 1. ariketa:** Esaldiak aztertuz, erlijioari eta hizkuntzari lotutako aurreiritzien inguruan gogoeta egiteko ariketa.
- 2. ariketa:** Testu bati buruzko iruzkina. Testu horretan agertzen diren aniztasun eta aberastasun ideiei buruzko azterketa.
- 3. ariketa:** Hizkuntzen arteko ukipenari buruzko azterketa. Maileguak, interferentziak, etab.
- 4. ariketa:** Testu bat "spanglish"en idaztea. Jolasteko helburua.
- 5. ariketa:** Ikerketa-lana. Erro erlijiosoak dituen gatazka bat aukeratzea, eta gatazka horren jatorria, ondorioak, egon daitezkeen konponbideak aztertzea...
- 6. ariketa:** Unitate amaierako lana: Eztabaida bat egitea. Prestatu eta antolatzea, eta ondoren egitea. Grabatzea.

1. ARIKETA: HIZKUNTZA ETA ERLIJOARI LOTUTAKO AURREIRITZIAK

- ? Malagan oso gaizki hitz egiten dute, gaztelania txukuna Valladolid eta Salamancan egiten dute.
- ? Galiziera hizkuntza gozo-gozoa da.
- ? Iñakiren amak oso euskara itxia erabiltzen du.
- ? Ez hadi judua izan!
- ? Katalana oso hizkuntza korapilatsu eta zaila da, ahoskatzen denaz bestela idazten baita.
- ? Zerri hutsa da
- ? Afrikako zenbait hizkuntza oso soil eta garatu gabeak dira, eta ez dute ez gramatika ez hiztegiarik.
- ? Ez dut ingelesik ikasi nahi, hizkuntza inperialista baita hori.
- ? Pilarren mutila mairu hutsa da, ez dio kalera bakarrik irteten uzten.
- ? Alferrik da milioi bat hiztun besterik ez duen hizkuntza bat ikastea.
- ? Gaztelania errazagoa da, ahoskatu bezala idazten baita beti.
- ? Hobe litzateke denok hizkuntza bakarra erabiliko bagenu.

"Enseñar lengua", Cassany, Luna eta Sanz, Editorial Graó

Goiko taulako esaldiak irakurri ondoren,

a) Zure taldekideekin batera aurreiritziak erakusten dituzten antzeko esaldiak bilatu behar dituzue.

b) Ondoren, gai honi buruz duzuen iritzia eztabaidatu taldean: "Hizkuntza batzuk hobeak al dira besteak baino? Zergatik?" Zuen iritziak eta arrazoibideak datuak jasotzeko taulan bildu.

HOBEAK dira, ondoko arrazoiengatik	Ez dira HOBEAK, ondoko arrazoiengatik
.	.
.	.
.	.
.	.
.	.
.	.

c) Taldeka, goiko aurreiritzietako baten antitesia den esaldia idatzi, zuen iritzia laburbilduz. Lehen sekuentzian egindako horma-irudiari laguntzeko lelo gisa erabiltzeko modukoa behar du.

2. ARIKETA: MUNDUKO HIZKUNTZAK

8. Dorrea zapuztu diguzue. Baina ez diguzue kenduko zigorraren gozamina

“Munduan hizkuntza asko dago, eta guztiak betetzen dute beren egitekoa. Aztoratzen ez baditugu, noski. Eta hizkuntza guztiak dira onak; baina hizkuntzekin egiten den guztia ez da beti ona. Maiz samar, giza hizkuntzak manipulatatu egiten dituzte, nagusitasun-interesen ikur bihurtzen dira, senideen arteko borrokarako arma (...)

Hizkuntza guztiak onak dira (nahiz eta, zehatzago izateko, hizkuntza guztiak «dira» besterik ez genukeen esan beharko), (...) hizkuntza guztiak egokiak dira eguneroko hizketarako, filosofia hutserako eta zientzia zorrotzenerako...

Nolanahi ere, zaila da chauvinismoari ihes egitea (...). Hizkuntzari buruz era guztietako aurreiritziak aurkitzen ditugu munduan barrena (...).

Zenbait aurreiritzik ez dute kalterik sortzen: musika-doinua duten hizkuntzak eta hizkuntza zakarrak bereizten dira, batzuk argiak eta besteak ilunak omen dira, zailak edo errazak. Borondate ona eta berenez gain beste hizkuntza batzuei buruzko ezagutzarik badutenei ere iluna iruditzen zaie italiara, adibidez, italiarrek “azkar” hitz egiten dutenean. Halakoetan, erantzun bakarra dago: «ez dakizue behar beste italiarrik» (...).

Ezjakintasunaren eta goian «ez kaltegarritzat» jo ditudan aurreiritzien gainean, nahita harrotutako aurreiritziak sortzen dira (...). Jende askotxok uste du hizkuntza batzuk hobeak direla «gehiengoarenak» direlako, eta beste batzuk, berriz, «gutxiengoarenak» direla...

Hizkuntzen geroa herrien mendekotasun-harremanen arabera izango da, argi eta garbi. Baina hizkuntzek bizirik iraungo dute hizkuntza horien jatorrizko hiztunek hura zaintzeari uzten ez dioten bitartean (...)

Mitoaren arabera, paradisuari hizkuntza bakarra hitz egiten zen eta Babelez geroztik ezin konta ahala hizkuntza zabaldu zen munduan barrena. Hizkuntzen sorta distiratsua gizateriaren ispilua dugu. Ez dugu inoiz inongo paradisuara itzuli nahi.”

El lujo del lenguaje, Tusón, Paidós Comunicación

- Testua arretaz irakurri eta garrantzitsua iruditzen zaizuen guztia azpimarratu.
- Taldeka lan eginez, zuk eta zure ikaskideek azpimarratu duzuen alderatu, testuko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak zein diren erabakitzeke.
- Taldean eskema bakarra osatu, denon artean gogoeta egin ondoren. Eskema lan-koadernoan jaso behar duzue.
- Taldean aurreko testuaren iruzkin-testua idatzi behar duzue, gaiari buruz duzuen iritzia jasoz. Testuak ondorengo egitura izan behar du. Gogoan izan, aurrena zirriborroa egin eta ondoren berrikusi egin behar duzuela.

Testua gai honi buruzkoa da:

Egileak iritzi hau ematen du:

Ados nago/ ez nago ados, ondoko arrazoiengatik:

Laburbilduz,

3. ARIKETA: HIZKUNTZEN ARTEKO HARREMANAK

“Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian, hamar eguneko tartearekin edo. Biak zuzen-zuzen etorri ziren nik Boiseko city amerikano honetan daukadan etxeraino, eta nire iloba Jimmyk jarri zizkidan eskura. Azkenengoarekin ailegatu zenean ni mimosaren adarrak txukuntzen nengoen, umore onean, alegia, zerengatik umore txarrean nengoenean ez baitut gardena zaintzen hasteko gogorik izaten, eta dolar bat eman nion sari bezala. Halere Jimmyk kezkatuta bezala begiratu zidan, sudurra zimurtzeko berak daukan keinu very nice horrekin.

- Zer, Jimmy?- esan nion_ Ez al zaik nahikoa iruditzen?
- Ez da hori, aitona-erantzun zidan berak, nik bere kolekziorako luzatzen nion seilua hartuz.
- Zer, orduan?
- Zergatik hainbeste letter Europatik, aitona?-galdetu zidan orduan bere school horretan erakusten dioten english dotorean. Ezin duenak ezin du, eta nik ahal bezala argitu nion asuntua, nire english kaskarrean, alegia. Ba hori, Europa, aldekoa nintzela eta... oraindik familia piska bat ere baneukala han eta... lagunak ere baneuzkala eta...ba horregatik jasotzen ditudala gutunak itxaso haundiaren bestaldetik.”

Bi letters jaso nituen, B. Atxaga,

- a) Irakurri testua arretaz.
 - b) Taldekideekin batera zuen ustez euskarazkoak ez diren hitz, esaldi, esamolde, etab. guztiak bilatu.
 - c) Egizue gaztelania eta euskararen artean gertatzen diren halako adibideen zerrenda.
 - d) Egunkari bateko zuzendariari gutuna idatzi behar diozue ondorengo tesietako bat erabiliz:
 - ? Hizkuntzen arteko mailegu eta ukipena hizkuntza horien bizitasunaren eredu dira, eta onuragarriak dira haientzat.
 - ? Maileguez eta ukipenak pobretu egiten dituzte hizkuntzak, eta haien nortasuna ezabatu dezakete.
- Bilatu hiruzpalau argudio aukeratutako tesia alde, eta zuen iritzia argi eta garbi jasotzen duen testu bat idatzi argudio horiek erabiliz.

ALDEKO ARGUDIOAK
.
.
.
.
.

Gutun eredua

Data
Agurra
Honen bidez adierazi nahi dizuet oso pozik/kezkaturik nagoela, ondoko arrazoiengatik:
Hauetako aldea / aurka dituzten arrazoiak:
Agurra

4. ARIKETA: HIZKUNTZAK KUTSATU EGITEN DIRA

Ariketa hau binaka egin behar da. Bietako batek testu labur bat idatzi beharko du.

Horretarako, irakasleak “spanglish”eko hitzak biltzen dituen glosario laburra emango dio. Testua idazten duenak ahalik eta hitz gehien erabili beharko ditu hiztegi horretatik.

Ondoren, ikaskideari emango dio testua eta honek itzuli egin beharko du hiztegia erabili gabe. Amaitzeko, bi bertsioak alderatuko dituzue.

5. ARIKETA: GATAZKA BAT IKERTZEN

Ariketa honetan gaur egun munduan dagoen gatazka bati buruzko ikerketatxo egingo duzue. Lan honetan erlijioaren gaia eta honek herri bateko baldintza sozial, politiko eta bestelakoekin duen lotura aztertuko duzue. Lana gizarte eta kultur aniztasunaren inguruan prestatzen ari garen material-erakusketaren barruan sartuko da.

Oraingo honetan, azkenaldian oihartzun handia duen gatazka bat hartuko dugu aztergai: talibanen erregimena. Afganistango egoera, herri honek jasandako erregimena, hango fundamentalismo erlijiosoa, gizartearen gaineko ondorioak, etab. aztertuko ditugu. Hemen proposatzen dizugun ariketa hau lan konplexua da, eta hainbat egun iraungo du. Egunotan zehar hainbat lan egin beharko duzue ariketa osatzeko.

IKERKETA BAT EGITEKO URRATSAK

<p>1. URRATSA: INFORMAZIOA BILATZEA</p>	<p>A) Gaian sakontzen hasteko, "Kandahar" izeneko filma ikusiko duzue, herri honen egoera pixka bat ezagutzeko.</p> <p>B) "Ideia-jasa" baten bidez, Asiako herri horretan sortutako gatazkari buruz dakizuen eta dituzuen ideiak azalduko dituzue.</p> <p>C) Ekarpen guztiekin lana egiteko behin-behineko eskema bat egingo duzue denen artean.</p> <p>D) Irakasleak oinarrizko informazio-txosten bat banatuko dizue. Gutxienez beste informazio-iturri batekin osatu beharko duzue txostena. Adi egunkari, aldizkari eta abarrekin.</p>
<p>2. URRATSA: INFORMAZIOA LANTZEA</p>	<p>A) Informazio-txostena arretaz irakurri. Sortzen zaizkizuen zalantzak eta ondo ulertzen ez dituzuen informazio guztiak irakasleari galdetu.</p> <p>B) Lan-eskema osatzeko garrantzitsua iruditzen zaizuen informazio guztia azpimarratu.</p> <p>C) Prestatutako eskema osatzeko garrantzitsua iruditzen zaizuen informazio guztia laburtu. Beharbada eskema aldatu beharko duzue orain, zuek bildutako informazioa eskema horrekin bat ez badator.</p>
<p>3. URRATSA: INFORMAZIOA LABURTZEA</p>	<p>A) Informazioa aukeratutakoan, informazio horren laburpena egin. Lanaren lehen zirriborria izango da hau. Gogoan izan ondoko puntuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ? Ezin duzue daturik errepikatu eta datuek ezin dute kontraesankorrak izan ? Indikatiboko orainaldiko 3. pertsona erabili behar duzue ? Testua paragrafoetan banatu ? Paragrafoen hasieran lokailuak erabili, testuari kohesioa emateko
<p>4. URRATSA: TESTUA IDAZTEA</p>	<p>A) Zirriborria berrikusi, gramatika eta ortografia zuzentzeko.</p> <p>B) Behin betiko testua idatzi alderdi formalak aintzakotzat hartuta: izenburuak, marjinak, orrialde-zenbakiak, azala...</p>

6. ARIKETA: EZTABAIDARAKO GAIA: ERLIJOA

Ariketa honetan, erlijioen gaiari buruzko eztabaida egingo duzue. Hauxe izango da eztabaidatu beharreko gaia: Erlijioek bizikidetzaz bultzatzen dute, bai ala ez?

Eztabaida hau egiteko prestatu egin beharko duzue alde aurretik. Horretarako, binakako taldeetan banatuko zarete eta aldeko edo aurkako jarrera hartuko duzue. Ondoren, aurreko ariketako informazioa erabiliz, zuen arrazoibidea irudikatzen dituzten argudio eta adibideak bilatuko dituzue, eta datuak biltzeko orrian jasoko dituzue. Beste taldeek zuek adierazitakoaren kontra zein argudio erabil ditzaketen pentsatu behar duzue alde aurretik, haiei erantzun ahal izateko.

Orriotan jasotakoa gainerako ikaskideei aurkeztuko diezue, besteen iritzia entzun eta zuen jarrera gainerakoen ekarpenekin osatzeko.

Prestatzeko fase honen ondoren, eztabaidari ekingo diozue. Horretarako, moderatzaile bat eta eztabaidari buruzko datuak bilduko dituen behaketa-taldea izendatu beharko dituzue aurrena.

Datuak biltzeko orria

1. argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak
1. argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak
1. argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak

Eztabaidako baloratzeko orria

	Argudio sinetsgarri eta sendoak erabili ditu	Hitz egiteko txanda iritsi arte itxoin du	Aurkako iritziak errespetatu ditu
A taldea			
B taldea			